

HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAREN AURRETIKO FASEA HERRITARREN PARTE-HARTZE PROZESUA

DATA: 2016/04/11 **ORDUA:** 19:00-21:00

LEKUA: TOPAGUNEA (KULTUR ETXEA)

PARTE-HARTZAILEAK: 33 LAGUN (12 EMAKUMEZKOAK; 21 GIZONEZKOAK)

HERRITARRAK: Aitor Elduaien, Aitor Errasti, Andu Martinez de Rituerto, Bittor Fernandez, Elena Basagoitia, Garikoitz Murua, Guillermo Malkorra, Ibai Luke, Imanol Zobelzu, Iñaki Ayerza, Itzea Urkizu, Itziar Dolado, Ivan Asenjo, Jatsu Ormazabal, Javier Arana, Jokin Aldazabal, Jokin Sukia, Joserra Zalakain, Juan Urretabizkaia, Katixa Perea, Kike Amonarriz, Kike Zinkunegi, Maria Mendiluze, Mertxe Amiano, Mikel Arreseigor, Mireia Carceller, Mireia Roca, Moira Eceiza, Olga Artola, Pablo Alberdi, Tarana Karim, Tomas Plazaola, Xabier Goenaga.

UDALA: Joseba Ormazabal (Zinegotzia), Garikoitz Lekuona (teknikaria) eta Iñigo Muñoz (teknikaria).



GAI ZERRENDA

1. Saioaren aurkezpena
2. Prozesuaren aurkezpena: NORA iritsi nahi dugu? NOLA egin nahi dugu?
3. Taldearen aurkezpena
4. Prozesuaren inguruko zalantzak argitzea
5. Zer nolako Tolosa imajinatzen dugu 2030. urtean?
6. Saioa ixtea eta amaiera ematea

LABURPENA

1. SAIOAREN AURKEZPENA

Joseba Ormazabalek, Gardentasuna, Parte Hartzea eta Komunikazioaren Gizartea Batzordeko zinegotziak hitz labur batzuk eskaini ditu Talde Sustatzailean parte hartzera animatu diren guztiei eskerrik beroena adieraziz.

Jarraian ekimenaren ardatzak zeintzuk diren azaldu ditu, guztia politika publikoa egiteko modu berri batean kokatuz eta garrantzia berezia ematen politika publikoen jarraipena egiteko eta politika publikoak ebaluatzeko egin beharrari. Azken hauetan kokatuz gaur abian jartzen den prozesuaren ardatza, parte hartzea, zeharkakotasuna, gardentasuna eta planifikazio adostuz gain.

Amaitu bezain laster gelatik alde egin eta Garikoitz Lekuona eta Iñigo Muñoz udal teknikarien esku utzi du saioaren gidaritza.

2. PROZESUAREN AURKEZPENA: NORA IRITSI NAHI DUGU? NOLA EGIN NAHI DUGU?

2016 urtean zehar burutu beharreko prozesuaren nondik norakoak modu arinean azaldu dituzte, urrats edota gako desberdinak azalduz eta guztiak kronograma batean kokatuz.


Lehenik eta behin, Nora iritsi nahi den eman da jakitera:

PROZESUA: NORA IRITSI NAHI DUGU?



Jarraian, prozesua NOLA gauzatu azaldu da:

PROZESUA: NOLA EGIN NAHI DUGU?



3. TALDEAREN AURKEZPENA

Bertaraturakoen norbanako aurkezpen erronda zabaldu da gero, izen-abizenak eta bakoitzaren interesezko gaiak aipatzea eskatuz.

4. PROZESUAREN INGURUKO ZALANTZAK ARGITZEA

Prozesuaren nondik norakoak azaldu eta Talde Sustatzaileko kideek beren buruak aurkeztu eta beraien esperientziatik zer alor edo gaiari buruz ezagutza gehien duten jakinarazi eta gero, tarte zabaldu da partaideek dituzten zalantzak edo galderak plazaratzeko. Honakoak izan dira mahai gainean jarri diren galdera edo kezka:

Prozesua eta planaren jarraipenari dagokionez, beste garaiko prozesu parte-hartzaileekin gertatu den bezala, jarraipenik ezta emaitzarik ez ikustearren kezka azaltzen da. Honekin lotuta, plangintzaren jarraipena nola ziurtatzen den inguruko zalantza mahai gainean jartzen da.

Udalak orain egiten ari den planteamenduan prozesuaren jarraipena ziurtatzen dela azaltzen du, dokumentu-bizia osatuko delarik, urtez urte errebisatuko dena. Prozesuaren baitan osatuko den dokumentua publikoa izango da eta bere jarraipena eta betetze mailaren azterketa egingo da.

Udaletxearen barrura begira Lankidetzaren Mahaia osatu da, departamentu guztien teknikariz osatutakoa. Mahai honetan prozesuaren jarraipena egingo da. Politikariek eta alderdi politikoak aldatu egiten dira baina udal teknikariak langileak dira eta hauek ez dira aldatzen.

Honen harira, **teknikariak** ez ote lukete bileretan egon behar planteatzen da eta udalak Udal teknikariak hurrengo fasean sortuko diren mahai sektorialetan egongo direla aipatzen du. Era berean, Talde Sustatzailearen bilera guztien jarraipena Lankidetzeta Mahaian egingo da. Edonola ere, prozesua hasteko egokia ikusi da lehenik eta behin diseinu fase bat egitea Talde Sustatzailearen bitartez, zer-nolako herria nahi dugun irudikatu eta horren baitan mahai sektorialak eratu eta informazio zehatzagoa eskutan, alorrez alorreko azterketa bat egiteko gero herritar, herri eragile eta udal teknikariek batera. Hartara, gero, alor bakoitzak, dagokion teknikariaren parte hartzearekin, 5/6 ildo estrategiko izango ditu lantzeko, urtez urteko ekintza programa baten bidez gauzatzen joango direnak.

Parte-hartzea nola bideratuko den zalantzaren inguruan, taldeak adostutakoa zenbateraino izango den erabakiorra galdetzen da, askotan prozesu hauek dezepzioa sor dezaketela azalduz.

Gai honekin lotuta, **talde sustatzailea partaidetza sozialerako espazio bat** bezala ikusten dela aipatzen da ere, non iritzi desberdinak jaso ahal izango diren, eta parte hartze marko bat sistematizatzaren bidea landuko den. Taldeak adostutakoa aurrera eramatea taldeari ez dagokiola aipatzen da.

Udalak hurrengo bi saioen helburuetariko bat prozesu osoaren parte-hartze esparrua modu partekatuan lantzea eta adostea izango dela aipatzen du, beti indarrean dagoen lege-markoan kokatuz.

Beste zalantzen artean, **norberak bere burua ordezkatu** behar izatea mahai gainean jartzen da, baita prozesua bera **manipulatuta izatearen arriskua**.

Alde batetik, Udalak, orain arte ikasitakoan oinarrituz, ontzat eman den planteamendu metodologiko bat landu duela aipatzen du, zeinak modu sistematizatu batean lan egiteko bidea eskaintzen duen. Hau bide luze baten hasierako pausua besterik ez dela esaten da eta arriskua hor dagoela aipatzen da.

Azkenik, prozesuaren **asistentzia teknikoaren kontratazioaren** inguruko datu zehatzak eskatzen dira eta Udalak honen inguruko informazio guztia eskuragarri dagoela aipatzen du eta nahi duenak, eskaera eginez gero, hau guztia ikus dezakeela azaltzen du.

5. ZER NOLAKO TOLOSA IMAJINATZEN DUGU 2030. URTEAN?

Bertaratutakoei 2030. urterako amestutako Tolosa irudikatzeko hitz edo marrazki bat post-it batean egitea eskatzen zaie. Hitz bat baino gehiago jasotzeko aukera ematen da, post-it bakoitzeko bat.

Beharrezko denbora tartea eskaini eta gero, udala eta parte-hartzaileen artean jasotako ideiei eta ekarpen guztiak irakurri eta post-it guztiak horma-irudian ipini dute.

Jarraian jasotako ekarpenen zerrenda azaltzen da:

- *Solidarioa, desorekarik gabe, oinarrizko eskubideak bermatzen dituena,...*

- *Bienestar, cohesión social y sostenibilidad*
- *Tolosa Hiri lagunkoia desgaituentzat*
- *2030 Adineko pertsonak %30 edo gehiago. Tolosa hiri lagunkoia adineko pertsonentzako*
- *Menpekotasuna eta 3. adineko sektoreko bizi kalitatearen hobekuntza eta administrazio publikoaren inplikazioa.*
- *3. adineko sektorean lan egiten duten erakunde, kooperatiba eta langileen bultzapena eta indarra.*
- *Hiritar oro baldintza sozioekonomiko duinak izatea*
- *Un pueblo en una política de integración de la población inmigrante digna.*
- *Tolosa justua, solidarioa eta ekologikoa*
- *Tolosa inclusiva-amable: un lugar amable, donde nadie se sienta excluido. Donde sea posible acceder a la información, donde el entorno sea entendible, accesible. “Te entiendo-me entiendes” un lugar donde todos contemos*
- *Proiektu autogestionatuak, balore kapitalistak irauliz, solidaritatea eta auzolanez aurrera egingo duen herri bat. Langileen esplotazioa baimenduko ez duena. Udalak eta instituzio/enpresa handien kontrolatuko ez duen gizarte bat, asanblada oinarri izango duena. Kartelak zaborra bezala tratatuko ez diren herri bat.*
- *Tolosa 2030ean. Aniztasuna kulturala gizartearen arlo guztietan agertu, parte hartu eta ikusta. Herriko erabaki gehienak herritarrok erabakitzea politikoez ez. Genero arteak berdintasuna errespetatzen dena. Solidarioa izatea.*
- *Un Tolosa con hospital comarcal público de gestión pública y un ambulatorio de especialidades completamente dotado.*
- *Herritarren arteko berdintasuna nagusi. Ez aberats-pobre zatiketarik*
- *Adin guztietako hiritarrak bizitza aktiboa izateko baldintza egokiak dituen herria*
- *Políticas deportivas y juventud desde y para los ciudadanos (visión y ejecución)*
- *0 emisioduna*
- *%100 jasangarria*
- *Belaunaldi desberdinen arteko harreman sendoak bultzatzen dituena*
- *Herri hezitzailea: hezkuntzarako ikerketa zentro bat bultzatzailea. Hezkuntza eta kulturako ekintzak uztartu.*
- *Bizilagunen Tolosa bat. Ez herri berdinean bizi diren pertsonena*
- *Gure esku dago eta gure eskura*
- *Erreferentzia*
- *Herri dinamikoa eta sozialki inplikaturik. Balore sozialetan oinarritua. Bizikidetzaren sozio-politiko-linguistikoa sustatuko duena.*
- *Tolosa permeable*
- *Euskalduna eta anitza. Aniztasuna aberastasun iturritzat jotzen duena eta desberdintasun oro errespetatzen dituena. Bizikidetzaren eredu.*
- *Relaciones de confianza y abiertas. Honestidad.*
- *Tolosa orekatua: ekonomian, lurralde okupazioan, auzoetan. Ez tematikoa berezkoa. Orijinala*
- *Dinamikakoa izatea, koloretsuagoa.*
- *Kartelak jartzea delitu izango ez den herri bat. Kalearen erabilera denon artean erabakiko den herri bat.*
- *Mozal legea eta antzeko ordenantzak (Tolosako kasua) ez egotea. Gure bizia*

kondizionatzen ez duena. Kalea denona da, kalea eta hiri biziak.

- *Hipotetikoa da geroa....jasangarria, herri jakintsua, ekintzailea, eguneratua... Abangoardiako jatetxe baten sukaldea. Dibertigarria.*
- *Kultur taldeen sare erreal bat*
- *Herri kultura sustatu. Eskaparate izaeratik aldentuz eta barrura begira lan egitea. Euskaratik eta euskaraz bizi.*
- *Tolosa izan dadila hiri komertziala Andoain eta Idiazabal eremuan. Erreferente komertziala.*
- *Irekia denontzat. Oztoporik gabea. Erosoa (praktikoa). Paisaia zaintzen duena (bizitza aldetik)*
- *Politika herritarren esku eta herritarrentzat, herriarentzat, ez talde politikoen oilategia bezala.*
- *Municipio abierto, moderno, activo, arriesgado, uniendo en actividades a diversos sectores.*
- *Big Data. Herritarren zerbitzurako*
- *Hizkuntza normalizazioaren eredu izatea, herritar guztien HHEE errespetatuz, eremu guztietan. Horretan, Udalak, talde edo eragile jarreretan esku hartu beharko luke.*
- *Gure hizkuntza eta kultura bultzatzen, indartzen, sakontzen duen gizartea*

6. SAIOA IXTEA ETA AMAIERA EMATEA.

Saioari amaiera emateko, eskerrak eman, datorren saioa apirilaren 25ean, ordu eta leku berean izango dela gogoratzen da eta bakoitzari hitz baten bidez zein sentsazioarekin doan etxera azaltzea eskatzen zaio. Hona hemen jasotako inpresio edo sentsazioak:

- *Interesgarria bezain zaila*
- *Gogoia hausnarketarako*
- *Eskuzabalak izan behar gara*
- *Zaila*
- *Baliagarria*
- *Abstraktoa*
- *Entzundakoak eta gero, lanketa eskatzen du norberaren buruan*
- *Erronka handia + ilusioa*
- *Zehaztugabegia*
- *Amesteko laborategia espero nuen....ikusiko da*
- *Tunelan, erronka ona*
- *Ikusiko da*
- *Baikorra*
- *Denboraz motz (prozesua, bilera...)*
- *Oraindik zehazteko, ea aurrekoetan ez bezala, bukaera desberdina den*
- *Aberasgarria jendearen iritziak entzuteko, baina oso bideratua*
- *Amesteko denbora gutxi*
- *Geldoa*
- *Deskonfiantza, parte hartze azalekoa*
- *Deskonfiantza hasiera batean*

- *Aukera*
- *Ikusiko dugu*
- *Ikasketa*
- *Ilusio pixkat*
- *Aukera, positiboagoak izan beharko genuke*
- *Partaidetza*
- *Apustua*
- *Aukera, oinarri sendoak egiteko*
- *Aukera*
- *Kultura aldaketa*

Hau guztia jaso eta kontuan hartzen dugu, ez bakarrik hurrengo saiorako baizik eta prozesu osorako.

Eskerrik asko eta datorren bilerara arte, prestatu lanerako!